

KGko PROZESU PARTE HARTZAILEAREN EKAINAREN 12ko SAIOA

18 pertsonak parte hartu genuen: maila indibidualean joandako pertsonak eta hurrengo kolektiboen izenean joandako pertsonak: Antsoainen Harro, Laiak, Dekumas, Hormak, Naizen, Fenix, Iloa Ledo eta Kattalingorri.

1. PROGRAMA

ORDUTEGIA	
9.30-10:10	ONGI ETORRIA
10:10-11:20	1. ATALA: ZER
11:20-11:40	ATSEDENALDIA
11:40-12:50	2. ATALA: NOLA
12:50-13:10	ATSEDENALDIA
13:10- 14:00	EKINTZA PLANA ETA ITXIERA

1. ONGI ETORRIA

Aurretik egindako prozesua birpasatuz eta egunerako markatutako helburu eta planaren azalpenarekin hasi zen jardunaldia. Horren ostean, gerturatutako pertsona guztien aurkezpena egin zen, bakoitzak bere izena eta modu indibidualean edo kolektibo baten izenean gerturatu zen eta egunerako zituen helburuak esan zuelarik. Hurrengo ideiak atera ziren:

- Nafarroako LGTBI+ pertsonen eta kolektiboen sarea indartu.
- Kattalingorri ezagutu.
- Kattalingorri indartu, sare den heinean.
- Aktibismoari berriro heltzea
- Beste elkarteak egiten ari diren hura entzuteko eta haietaz ikasteko espazioa.

2. LEHENENGO BLOKEA: ZER

Honen ostean, banakako dinamika bat burutu zen, lehenengo blokeko galderak erantzuteko, hauek dira ariketatik ateratakoak:

GALDERA	ERANTZUNA	KOMENTARIOAK
<p><i>Alor politiko, sozial eta instituzionalean eragiteko, Nafar LGTBIQ+ kolektiboak saretzen dituen espazio (subjetu) bateratu bat egotea garrantzitsua iruditzen zaizue?</i></p>	BAI	<ul style="list-style-type: none"> • Indarra, batasuna eta elkartrukea behar ditugu. • 100% beharrezkoa • Espazio komuna • Erreferentziazko elkarte • Bozeramaile indartsu bat izatea • Kolektibo guztiek lekua izatea eta hauen ahalduntzean laguntzea • Ahots guzitik entzun daitezen • Elkarrekin indartsuagoak gara
<p><i>Kattalingorrik funtzio hau izaten jarraitzea baloratzen duzue?</i></p>	BAI	<ul style="list-style-type: none"> • Orain arte egindako lan eta sinergiak probesteko • Kolektibo bat edo kolektiboen sare izanen da? Bigarrena bada, bai • Posible bada, hobe KG konpondu, bestela, Otik hasi. • KGtaz gain beste espazio asanbleario batzuk ere beharrezkoak dira • Zerbitzu publikoen defentsarako garrantzitsua • Estructura eta logika berdina mantendu baina izena aldatu
<p><i>Elkarte bezela edo maila indibidualean hau baloratu duzue dagoeneko? Zure edo zuen parte hartzea bertan garrantzitsua da?</i></p>	BAI	<ul style="list-style-type: none"> • Elartuak egotearen garrantzia • Adingabeen eskubideen defentsarako oso garrantzitsua • Parte izan nahi dugu • KGik 2 hamarkada daramazki, indartu behar da eta instituzioekin harreman ona eduki eta aldi berean kaleak ere indartu • Bai elkarte moduan eta baita maila indibidualean parte hartzea baloratu da

Zertarako izan beharko zen subjetu hau? Zertarako izan beharko luke baliogarri? Zein izan behar dira bere helburuak eta funtzioak?

- Ideiak emateko, laguntzeko eta babeserako.
- Intzidentzi politikoa
- Kolektiboen gestioa
- Ikusgarritasunerako
- Nafarroa osora iristeko
- Bolondres plana
- Indarrak batu, proiektu komunak
- Federazioa, organo auditorea
- Beseak formatzeko
- LGTBI+ agenda batua ikusgarritasunerako
- Mugimendurako sarbide izatea
- Indarrak batu, erantzun batuak emateko
- Gizartea kontzientziatu eta informatu
- Pertsona/kolektiboen sarea
- Entitate ezberdinekin interlokutore
- Maila nazional eta internazionalen ere lan egin
- Erreferentzialtasuna, militantzia
- Kolektiboak babestu
- Instituzioekin hitz egin
- Saretu
- Landa eremua ikusgarri egin

Ariketa indibiduala egin eta gero, guztiok talde handiari egindako hausnarketak partekatu genizkion. Aporazio guztiak jaso ostean, atsedenaldiran, ateratako ideia guztiarekin diagnostiko bat egin zen taldean zabaltzeko eta berriro ere eztabaidarekin jarraitzeko talde txikietan.

Talde handian adierazitako ideien artean hurrengoak atera ziren:

- Kattalingorrik beharrezko gunea izaten jarraitzen du.
- LGTBI+ zerbitzuak beharrezkoak dira baina instituzioek nahi ezker, desagerrarazi ahal dituzte, KG aldiz, elkarte moduan ez. Zerbitzuek, KGtik mugitzen zen militantzia eta kale ekintza gutxitzea ekarri dute, horregatik indartu behar gara. Subjektu indartsu bat behar dugu ematen ahal diren aldaketa politikoak direla eta.
- Erreferentzialtasuna behar da. KG, kontsentsuz hartzen ditugun ideien bozeramaile moduan. Ahots ezberdinak elkartzen dituen erreferentzialitatea indartzeko beharra.
- Nafarroako LGTBI+ elkarte ezberdinak batzen dituen elkarte izateaz gain, LGTBI+ elkarte moduan ere funtzionatzea KGik. Sarbidea izatea beste kolektiboak ezagutzeko, eta sigla guztiak batzen dituen kolektiboa izatea. Honetaz gain, militantziaz kanpo dauden pertsonak (eta horrela jarraitu nahi dutenak) barnebiltzea. Bazkideekin, bestelako kolektiboetatik independente izaten ahal direnak ere.
- Modu deszentralizatuan jardutea, eta Nafarroa egituratzeko izatea.
 - Dena Iruñean ez egiten saiatu eta beste herrietatik mugitzen den guztia babestu.
 - Beste kolektiboak laguntzea eta bultzatzaile izatea. Zona bakoitzeko mugimendua indartzea (eta elkarteak).
 - Nahiz eta Kattalingune zerbitzuak modu deszentralizatuan jardun, KGtik bereziki indarra egitea existitzen ez diren lekuetan sareak eraikitzen.
- Ikuspegi Transfeminista, anitza eta integratzailea izatea.

DIANGOSTIKOA:

Parte-hartzaile guztiek baietz erantzun zioten Nafarroako LGTBIQ+ kolektiboen subjektu komun bat edukitzeko beharrari, eremu politikoan, sozialean eta instituzionalean eragin ahal izateko. Halaber, guztiek azaldu zuten Kattalingorri gaur egun ere tresna saretzailetzat hartzen zela, baina honako alderdi hauek indartu behar zituela: adostutako eragin soziala, begirada deszentralizatua, sare lana Nafarroa mailan, Espainiako Estatuan eta nazioartean. Zentzu honetan, bazeuden egungo KG konpontzea hobe zen arren, izena aldatuta ere, proiektu berri batekin has zitekeela adierazten zutenak ere.

Bertaratutakoek talde mailan zein banaka parte hartzea baloratzen zuten galdetuta, erantzun gehienak baieztokak izan ziren, erantzun zuri bat izan ezik, ordezkatzeko zuten kolektiboan denbora gutxi zeramalako.

4. eta 5. galderei dagokienez, subjektu saretzaile horrek izan behar zituen helburuei eta funtzioei dagokienez, erantzunak honako hauek izan ziren:

- Politikan, gizartean eta erakundeetan eragiteko eta hitz egiteko tresna.
- Bat egiteko, laguntzeko, erantzuteko eta proiektuekin bat egiteko erreferentziarako espazioa (LGBTIQ+ pertsonen eskubideen defentsa eta ikusgarritasuna)
- Nafarroa osoko ikuspegiarekin lan egin dezala, landa-eremua barne.

3. BIGARREN BLOKEA: NOLA?

Diagnostikoa entzun ondoren, parte-hartzaileei gonbitea egin zitzaien diagnostikoaren ondorioz sor zitezkeen ideiak talde txikietan landu zitezzen proposatu zitzaien, "NOLA?" Galderaren inguruko bigarren blokeari buruz eztabaidatzeko.

II blokeko galderak:

1. Proposatutako estruktura baliogarria iruditzen zaigu? Zer botatzen dugu faltan? edo zer aldatuko genuke?Eztabaida eta erabakiguneak
 - a) Nortzuk eta nola eratzen dira?
 - b) Parte hartze bideak eta partehartze momentuak.
2. Ze funtzio izan beharko zuen bakoitzak? Organo edo erabakigune horien biltze maiztasuna.
3. Ze formula juridiko izan beharko luke? Izan behar du formula juridiko bat? Junta bat eraikiko da? Edo beste formula bat?

Prozesu guzti honetan egun aktibo dagoen **juntaren aldaketaren** beharra dago, egun kargu ezberdinak dituzten pertsoneri erreleboa emateko eta indarberritze aldera.

4. Nola ikusten da zuen kolektibotik egun juntan dauden pertsoneri erreleboa ematea? Nola ikusten da pertsona indibidualak juntaren parte izatea.

TALDE BAKOITZEKO ONDORIOAK:

G. 1	<ul style="list-style-type: none"> • Formula ez hain hierarkikoak bilatzea. Garrantzitsua da kolektiboak zentroan egotea eta erabiltzaileei presentzia handiagoa emango dieten formulak kontuan hartzea, bai zerbitzuetatik etor daitezkeenak, bai elkartera hurbil daitezkeenak. • Planteatzen den egituraz gain, bitarteko organo bat proposatzen da: hainbat kolektibo eta norbanakok osatutako kontseilu bat. Kattalingorriren batzarreko kide izatea, hau da, Kattalingorriren bazkideen batzarreko parte izatea. Organo horrek aztertzen du LGBTI+ arloko egoera, eta adostasunez ezartzen ditu erronkak. Juntaren laguntza ere izan daiteke. Aldizkakotasunari dagokionez, gutxienez urtean 4 aldiz proposatu da, baina atea irekita utzi behar da behar den guztietan biltzera. Juntari dagokionez, hamabostean behin bilerak egitea proposatzen da, eta, besteak beste, elkartearen premiazko gauzei erantzutea eta eguneroko zereginez arduratzea izanen dira bere funtzioak. Kontseiluko kideak eta batzordekoak desberdinak izatea proposatu da. • Formula juridikoa: Federazioa eta/edo egin nahi den guztia egin daitekeela bermatzeko beharrezkoa den formula. • Garrantzitsua da kolektiboak egituraren erdigunean egotea. • Boluntariotzarako kanalak izatea. Kasu honetan, KG beste kolektibo batzuetarako sarrera gisa eta berau osatzen duten kolektiboen militantzia aktibatze.
G.2	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarteko bazkideek eratzen duten junta bat proposatzen da. Koordinazio bi ildo, bat

	<p>zerbitzuetako koodinatzailea eta bestea, koordinazio talde bat elkartegintza lan ildoari dagokiona (intzidentzi politikoa, soziala eta instituzionala eta sentsibilizazio), azken hau Nafarroako kolektiboek eta KGko nahi duten bazkideek osatuko dute. Maila indibidualean parte hartu ahalko da, baina KG-ko bazkide izanik. Honetaz gain, jarraipen batzorde bat proposatzen da, hiruhilean behin elkartuko dena, zerbitzuen koordinazioa, kolektiboen ordezkariak eta juntaren ordezkariak batuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Batzorde iraunkorrak (lehenagotik sortuak eta denboran mantentzen direnak) eta aldi baterako batzordeak (gai zehatz bat lantzeko eratuak) sortuko dira. • Elkarteak gainera asanblada orokorra izanen du (bazkide diren pertsona guztiek eratzen dutena) gutxienez urtean behin bilduko dena, urteko balantzea egiteko eta hurrengo urtea aurreikusteko, honetaz gain, ezohiko batzarrak ere deitu ahalko dira. • Estatutoetaz gain ongi legoke barne araudibat idaztea.
G. 3	<ul style="list-style-type: none"> • Estructura: bi pertsona liberatu ongi ikusten da. La idea de dos personas liberadas se ve bien. Kolektiboek osatutako zuzendaritza-batzarraren ordezkariak, elkarte oso bat proposatzen da, bazkideekin eta bere juntarekin, zuzendaritza-lanak eginez. Adierazi da zaila dela kolektibo/letra guztiak ordezkariak direla bermatzea. Estatutuetan markatzea proposatzen da, edo irekita uztea eta organikoki mantentzen saiatzea. Oro har, irekia uztea baloratzen da. Juntaren ordezkariari dagokionez, ordezkariak kolektiboena edo letretakoa izan behar den planteatu da, eta, oro har, kolektiboena izatea erabaki da • Parte hartzeko bideak: Alde batetik, sei hilean behingo batzar "burokratikoago" bat planteatzen da, elkarterako bakarrik, eta, bestetik, hileko bigarren batzar arinago bat, aktibismoa oro har biltzeko planteatua, agian talde berriei irekia. • Forma juridikoa. Elkarte gisa. Talde zehazketan eta elkarte gisa ezarrita ez dauden kolektiboetan ez dauden pertsonak lekua izan dezaten. Gainera, Lgtbi+ gaia oro har landu nahi duten pertsonak sartzeko aukera ematen du. • Junta: bazkideek batzar baten bidez osatzea planteatu da. Erabakiak hartzeko hileko batzarrak, baldin eta juntari ez badagokio gehiegi ez kargatzeko. Bi koordinazio-figurekin (zerbitzuak eta elkarteak) lan egiteko, bazkideez osatutako koordinazio-taldeak sortzea planteatzen da, lana arintzeko eta komunikazioa hobetzeko.

DIAGNOSTIKOA:

KGk proposatzen duen proposamenari dagokionez, hiru taldeek junta Kattalingorri elkarteko bazkideez osatuta egotea ikusten dute eta haren funtzioak elkartearen egunerokotasunarekin lotuta egotea, eta beste organo baten bidez egitea (G1entzat, Kontseilua izango litzateke, G2rentzat, Kolektiboak Koordinatzeko Taldea, G3rentzat hileroko Batzarrera). Batzarra Nafarroako LGBTI+ talde guztiek eta hala nahi duten pertsona indibidualek osatuko lukete, zeinak LGBTI+ proiektuek dituzten beharrak eta pertsonen ikusgaitasuna landuko litzuket.

Horrez gain, batzar orokorra ere badago, urtean behin edo bitan deituko litzatekeena elkarteko bazkide guztiekin. Taldeetako batek jarraipen-batzorde bat gehitu du, eta bertan batzarreko ordezkariak, zerbitzuen koordinatzaileak eta Nafarroako LGBTIQ+ kolektiboen koordinazio-taldeko ordezkariak bat egingo lukete.


Juntaren osakerari dagokionez, batzordea osatzen duten pertsonak Kattalingorriren bazkide izatea (edo izatera pasatzea) proposatzen da. Juntako ordezkagarritasunari dagokionez, sigla eta/edo kolektiboari dagokionez, behin betiko formula zein izango den definitzeko dago.

Formula juridikoari dagokionez, Federazioaren aukera agertzen da eta elkarte gisa mantentzea orain arte bezala ere bai, non elkarte bakoitzak bere gaitasun juridikoari eutsiko liokeen. Lehenengo proposamena da, batetik, elkarte bakoitzaren idiosinkrasia mantentzea, eta, bestetik, KGik elkarte txikiak ez fagozitatzea. Bigarren proposamenaren helburua da, alde batetik, elkarte zehatzetan militatu nahi ez duten pertsonen (ordezkatzen dituen sigla ez dagoelako, adibidez) eta sigla guztietatik lan egin nahi duten lekua ematea, bestetik, beren egoera edo erabaki politikoagatik elkarte gisa eratu nahi ez duten eta KGko kide izan nahi duten mugimendu guztiak barnebiltzeko.

4. EKINTZA PLANA

Hiru taldeek azaldutako guztiaren diagnostika egin ondoren, ondorioztatu zen proposamen guztiak ia berdinak zirela eta egon zitezkeen aldeak ekintza-plana gauzatzuz argitzen joango zirela. Hori dela eta, bi blokeei buruzko diagnostikoaren ondorioz antzeman ziren elementu nagusiak bozkatzeari ekin zitzaion.

- Formula juridikoa: atal honetan bazeuden elkarte-formulari eusteari buruzko kezka agertu zuten parte-hartzaileak, eta horrek itzala egitea edo gainerako elkarteak ikusezin bihurtzea ekar zezakeela adierazi zuten. Elkarte ereduari eutsiz beste elkarten fagozitzazio hori saihesteko, KGren barne-araudian jasotzea proposatzen da, beti errespetatu eta sustatuko baititu hura osatzen duten elkarteak eta mugimenduak, eta berrikuste modu bat sortuko baitu baieztapen hori denboraren poderioz indargabetzen ez dela egiaztatzeko.
 - Bozketa: elkarten formulari eustearen aldeko 17 boto eta kontrako boto 1.
 - KGren formula juridikoari buruzko ondorioa: elkartearen estatutuak berrikusi eta barne-erregelamendu bat garatu beharko da.
- Elkartearen egitura: hiru taldeetan ateratako hiru proposamenetatik abiatuta, honako hau izan bozkatu zena:



- Bozketa: proposatzen den estrukturarekiko 17 bozka alde eta abstentzio 1.
- Elkartearen egiturari buruzko ondorioa: dokumentu honetan proposatzen dena. Zehaztasun handiagoz garatu beharko dira organo bakoitzak bete beharko dituen eginkizunak.
- KGren egiturari planteatzen diren organoetan parte hartzeko formula bazkideak edo KGk biltzen dituen kolektiboetako kideak izatea.
 - Bozketa: 18 alde, unanimidatea.
 - Ondorioak: KG-ko estrukturako organoen parte izateko (JUNTA+KOLEKTIBOEN KOMISIA+ZERBITZUEN KOORDINAZIOA) barnebiltzen dituen kolektibo baten bateko kide izatea.
- Elkartearen printzipioak: interseksionala, transbertsala, transfeminista eta deszentralizatua.
 - Bozketa: 18 alde, unanimidatea.
 - Ondorioak: barne araudi bat garatu beharko da printzipio hauek aplikatu eta garatzen direla bermatzeko.

EKINTZA PLANA (Hurrengo pausuak):

1. LAN PROPOSAMENAREN SOZIALIZAZIOA:

- a) Etorri ezin izan duten pertsona eta kolektibo guziei prozesuan gertatutakoak biltzen dituen dokumentu bat bidali, zeinetan jardunaldi honetan adostutako ibilbidea markatuko den.
- b) KG dagoen prozesua publiko egin komunikabideen bidez, kolektiboen arteko sareak eta LGTBIQ+ pertsonen artekoak indartzeko. Helburua prozesua ezagutaraztea eta nahi duenak parte hartzera gonbidatzea, borroka sinergikorako herreminta bat sortzeko.

2. BAZKIDE KANPAINA:

- a) Bazkide kanpaina bat abiatu, prozesuan parte hartzera gonbidatu. Jardunaldian parte hartu duten pertsona guztiak, bai maila indibidual bai kolektiboren baten izenean, Kattalingorriko bazkide egitera gonbidatu. Helburuak: KG-ren baseak indartu eta asanbladaren parte izan, erabaki hartze guneetan egon ahal izateko eta guztion artean lan ildoak garatzen jarraitzeko.

3. BATZAR OROKORRA:

- a) Bazkide guztiakin eta Nafarroako LGTBIQ+ kolektiboekin batzar orokor bat deitu lan proposamena aurkezteko. Atal honetan adierazten da asanblada hori markatu diren lan ildoen jarraipenerako izanen dela, orain arte burututako lana eta hartutako akordioak errespetatuaz.
- b) Junta berriaren izendapena (egun dauden estatutuei egokituta) eta Nafarroako LGTBIQ+ kolektiboen koordinaziorako taldearen ordezkarien proposamena. Helburua: estruktura berriaren garapenarekin jarraitzea eta bertatik eratorriko diren beharrek ere bai.

Denbora faltagatik airean geratu zen ekintza planaren hurrengo pausuen kalendarizazioa, adostu zen bakarra zera izan zen; asanblada orokorra irailean deituko dela. Horregatik guztiagatik, egungo KG-ko junta arduratuko da ekintza planaren kronograma gauzatzeaz.